

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****Kreditu aldaketen hasierako onarpena**

Urduñako udalak, 2019ko azaroaren 18an eginiko aparteko bileran, hasiera batez onartu du 26/2019 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitateari dagokiona, udalaren 2019ko aurrekontuaren barruan.

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikuluan xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua*: Idazkaritza/Kontu Hartzaitzako bulegoak.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea*: hamabost lanegun, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak*: 10/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak*: aipatu Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa*: Urduñako Udaleko Sarrera Erregistroa.
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa*: Urduñako Udala.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Urduñan, 2019ko azaroaren 18an.— Alkatea, Itziar Biguri Ugarte